



## **5/2024 TXOSTENA, MAIATZAREN 17KOA, KONTRATAZIO PUBLIKOAREN AHOLKU BATZORDEAREN BATZORDE IRAUNKORRARENA**

**GAIA: EITB-REN BILBOKO EGOITZAKO JANTOKI- ETA CATERING-ZERBITZUEN ETA  
EITB-REN MIRAMONGO EGOITZAKO KAFETEGI-, JANTOKI- ETA  
CATERING-ZERBITZUEN EMAKIDA-KONTRATUAK**

### **1.- ARAUEN ETA ESKUMENEN ESPARRUA**

Kontuan hartuta 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora (aurrerantzean, SPKL), hain zuzen ere, 333. artikulua, Ebaluazio Bulego Nazionalak txosten bat egin behar du, nahitaez eta lizitazioaren aurretik, milioi bat eurotik gorako balio estimatua duten obra eta zerbitzuen emakida-kontratueta.

Txosten horien helburua da emakida-kontratuen bideragarritasuna aztertzea (zehatz-mehatz, haien jasagarritasun finantzarioa), bai eta, oreka ekonomikoa berrezartzeko, kontratu mota horietan hartu beharreko erabakien bideragarritasuna aztertzea ere.

Adierazi behar da txosten horiek egiteko eskumena ez dela jaso, eta Ebaluazio Bulego Nazionalarekiko atxikimendurik ere ez dagoela, araudian jasotzen den bezala (HFP/1381/2021 Agindua, abenduaren 9koa, Ebaluazio Bulego Nazionalaren antolaketa eta funtzionamendua arautzen dituena). Gauzak horrela, aipatutako 333. artikuluko 3. apartatuak hauxe ezartzen du: *«Autonomia-erkidego bakoitzak Ebaluazioko Bulego Nazionalarekin bat egin ahalko du, Bulegoak txosten horiek egin ditzan; bestela, organo edo organismo baliokideren bat sortu badu, nahitaezko txosten horiek organo edo organismo horri eskatuko dizkio, bere emakida-kontratuak ukitzen baditu».*

Hala ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 27.c) artikuluan xedatutakoaren arabera, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeari honako hau dagokio: *c) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakundeek kontratazio publikoaren alorrean haren irizpena eskatzen duten gaiei buruz informatzea; irizpen-eskaera hori kontratazioa kudeatzeko mandatua duten Eusko Jaurlaritzako zuzendariak edo sektore publikoko gainerako erakundeetako legezko*

*ordezkariak egin behar dute, idatziz. Aholku Batzordearen eskumenekoa da, halaber, interes ekonomikoak eta profesionalak dituzten elkarteek eta erakundeek kontratazioaren alorrean haren irizpena eskatzen duten gaiei buruz informatzea; irizpen-eskaera organo ordezkariak egin behar du».*

Era berean, uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 30.2.c) artikulua ezartzen duenez, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen Batzorde Iraunkorrari dagokio, besteak beste, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakundeek kontratazio publikoaren alorrean Aholku Batzordeari irizpena eskatzen dioten gaiei buruz informatzea.

Horregatik guztiagatik, eta SPKLren 333. artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren Araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 27.c) eta 30.2.c) artikuluetan adierazitakoaren babesean, bidezkoa da txosten hau egitea, arau horietan xedatutakoa betetzeko.

## **2.- AURREKARIAK**

2024ko martxoaren 25ean, Euskal Irrati Telebista ente publikoak eta haren mendeko EITB MEDIA SAU sozietateak osatutako Euskal Irrati Telebista Taldearen (aurrerantzean, EITB) eskabidea sartu zen Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzaren erregistroan, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeari zuzendua, honako bi emakida-kontratu hauen lizitazioei buruz txostena eman zezan, SPKLren 333. artikuluari jarraikiz: EITBren Miramongo egoitzan kafetegi-, jantoki- eta catering-zerbitzua elikagai-ekoizpenaren eta zerbitzuaren inpaktuak murrizteko ingurumen-irizpideekin emateko kontratua eta EITBren Bilboko egoitzan jantoki- eta catering-zerbitzua elikagai-ekoizpenaren eta zerbitzuaren inpaktuak murrizteko ingurumen-irizpideekin ustiatzeko emakida-kontratua.

Eskaera egin aurretik, EITBk bideragarritasun ekonomiko-finantzarioari buruzko txosten bana egin zuen bi lizitazioetarako, SPKLren 285.2 artikulua zerbitzuen emakida-kontratu etarako ezarritakoarekin bat etorriz.

Bideragarritasun-txostenekin batera, bi lizitazio-prozedurei buruzko dokumentazio hau bidali zuen EITBk:

- Kontratazio-espeditentaren hasiera justifikatzeko memoria.
- Administrazio-klausula partikularren agiria.
- Preskripzio teknikoen agiria.

Aipatu behar da zerbitzuen emakida-lizitazioa egin aurretik eman behar dela txostena. Alde horretatik, bi kontratuak txostena eskatu aurretik (2024/03/25) lizitatu eta adjudikatu ziren: Bilboko

egoitzaren kontratua 2024ko otsailaren 5ean adjudikatu zen, eta Miramongo egoitzarena, aldiz, 2023ko urriaren 24an. Beraz, zerbitzuak emateko bi kontratuak gauzatzen ari dira gaur egun.

### **3.- EITB MEDIA SAU-REN BILBOKO ETA MIRAMONGO EGOITZETAKO JANTOKI-ZERBITZUA KUDEATU ETA USTIATZEKO ZERBITZUEN EMAKIDA-KONTRATUEN OBJEKTUA**

Bi kontratu horien objektua da EITBren Bilboko eta Miramongo ekoizpen-zentroetako jantoki, kafetegi eta cateringaren emakida, preskripzio teknikoen agirian ezarritako aurrekontuaren eta baldintza teknikoen arabera.

Kontratuaren objektua kontratu publikoen hiztegi komunaren (CPV) honako kode honekin identifikatzen da: 55100000-1. Ostalaritza-zerbitzuak.

Bi emakida-kontratuaren iraupena 3 urtekoa izango da. Kontratu horiek bi luzapen eduki ahal izango dituzte, gehienez ere urtebetekoak. Beraz, kontratuaren gehieneko iraupena ezingo da 5 urtetik gorakoa izan.

Kontratuaren objektuaren helburua da natura-baliabideen efizientzia zeharka sustatzea, ingurumen-inpaktua murriztea eta jasangarritasuna bultzatzea. Horretarako, ingurumen-arloko gauzatze-baldintza berezi batzuk txertatu dira baldintza-agirietan, baita adjudikazio-irizpide gisa ere. Gauzak horrela, azterketaren xede den emakida honen zerbitzua «*elikagaiak ekoiztean eta berau gauzatzean duen eragina murrizteko ingurumen-irizpideen arabera adjudikatu beharko da*», preskripzio teknikoen agirietan jasotzen den bezala.

### **4.- ERAGIKETA-ARRISKUAREN ESKUALDATZEARI BURUZKO AZTERKETA**

SPKLren 15. artikulua arabera, zerbitzuen emakida-kontratua halako kontratu bat da non haren indarrez botere adjudikatzaile batek edo batzuek kostu bidez adjudikatzen baitiete pertsona bati edo batzuei, naturalak zein juridikoak izan, zerbitzu bat —botere adjudikatzaile horien titulartasuneko edo eskumeneko— kudea dezaten, haren ordaina izanik edo kontratuaren objektua diren zerbitzuak ustiatzeko eskubidea, edo eskubide hori izatea eta harekin batera prezio bat jasotzea. Artikulu horren bigarren apartatuak dio, gainera, zerbitzuak ustiatzeko eskubideak berekin ekarri behar duela emakidadunari eragiketa-arriskua eskualdatzea, SPKLren 14. artikulua laugarren apartatuan obren emakida-kontraturako adierazitako eran.

SPKLren 14.4 artikulura jo behar da, bertan definitzen baita obren emakida. Ildo horretatik, bi emakidetarako (obrak eta zerbitzuak), eragiketa-arriskuaren eskualdatzea honako hau da:

eskari- edo hornidura-arriskuaren eskualdatzea, edo biena. Horrela, demanda-arriskutzat honako hau hartzen da: kontratuaren objektua diren obren edo zerbitzuen demanda errealari zor zaiona. Eta hornidura-arriskutzat, berriz, kontratuaren objektua diren obren edo zerbitzuen hornidurari dagokiona; bereziki, zerbitzuen prestazioa eskariari ez egokitzekoa.

Halaber, ulertuko da emakidadunak eragiketa-arrisku bat hartzen duela, bermatuta ez daukanean, funtzionamenduko baldintza normaletan, egindako inbertsioak berreskuratuko dituenik edo emakidaren xede diren obren ustiapenaren ondorioz izan dituen kostuak estaliko dituenik. Horrez gainera, emakidadunak hartutako arriskuak merkatuko ziurgabetasunen aurreko esposizio erreal bat ekarri beharko du berekin, eta emakidadunak izan dezakeen galera estimatu oro galera nominal hutsa ez izatea, baizik eta kontuan hartzeko modukoa

Bi kontratuetan, adjudikaziodunak lortuko dituen diru-sarrerak erabat aldakorrak dira, eta gutxieneko bermerik ez duten zerbitzuak gauzatzeari lotuta daude. Ondorioz, eragiketa-arriskuaren eskualdatzea dagoela egiaztatu da.

## **5.- EITB-REN BILBOKO EGOITZAKO SUKALDARITZA- ETA CATERING- ZERBITZUAREN ZERBITZU-EMAKIDAREN JASANGARRITASUN FINANTZARIOARI BURUZKO AZTERKETA**

Atal hau EITBk aurkeztutako bideragarritasun-azterlana kontuan hartuta osatu da, kontratuaren baldintza-agiriei edo erakunde kontratatzaileak igorritako beste dokumentu batzuei buruzko aipamen puntualak alde batera utzi gabe. Atal hau osatzeko, gaingiroki jarraitu zaio bideragarritasun-txosten horren egiturari.

Behin baino gehiagotan, Kontratazioaren Aholku Batzordearen iritziz alda daitezkeen eta kontratuaren bideragarritasun ekonomiko-finantzarioaren txostenean eragin zuzenekoak duten elementuei buruzko oharra egin dira, baina elementu horiek espedienteko beste dokumentu batzuetan azpioptimotzat jotzen den moduan ageri dira. Horregatik, txosten hau kontratuaren lizitazioaren aurretik idatzi izan balitz, EITBk kontuan hartu beharko zituzkeen txosten honetan proposatutako aldaketak, zeinak onartuko lituzkeen, adieraziko ote liritekeen agertzen ziren beste aldietan ere.

Txostenaren puntu honetan Bilboko zerbitzuen emakida-kontratua bakarrik aztertu da. Miramongo kasurako azterketa sakonik ez egin izanaren arrazoia Bilbokoarekin batera aurkeztu izana da. Gainera, bi kontratuen artean paralelismo nabarmenak daudela egiaztatu da, horrenbestearainokoak ezen bukaerako ohar eta iruzkin gehienak partekatuak diren. Nolanahi ere, desberdintasun nagusiak txosten honetako 6. puntuan komentatuko dira.

## **5.1.- Zerbitzuen emakida-kontratuaren erabileraren justifikazioa eta zerbitzuen ezaugarri orokorrak**

Kontratazio modalitate hori erabiltzeari babeska ematen dio eskatutako zerbitzua kalitatez eta modu profesionalean gauzatzeko bermeak, bai eta eragiketa-arriskuaren emakidadunaren alderako desplazamenduak ere. Emakidadunak, hain zuzen, enpresa-pizgarri bat izango du mozkinak maximizatzeko, gastua arrazionalizatzearen bidez eta zerbitzuaren kalitatearekin eskaria estimulatzearen bidez.

### **Emakidaren objektua diren zerbitzuak**

Ostalaritzarekin lotutako bi zerbitzu dira, nolana ere, modu independentean gauzatzen direnak.

#### **Autozerbitzu modalitateko jantoki-zerbitzua**

Sukaldaritza-zerbitzu bat da, EITBren instalazioetan horretarako prestatutako espazioan, eta autozerbitzu modalitatean gauzatutakoa. Horren bidez, kontratua adjudikatzeko prozesuan zehaztutako zenbateko jakin bat ordaintzen diote erabiltzaileek emakidadunari. Sukaldaritza-zerbitzuaren prezio errealaren zati bat EITBk finantzatzen du, korporazioaren eta langileen arteko alde zuzeneko akordio sindikalen arabera; sorospen horrek ez du eraginik kontratuaren bideragarritasunean, ez baitio eragiten emakidadunaren fakturazioari, ez bada erabiltzailearentzat sukaldaritza-zerbitzua baldintza-agirietan zehaztutakoa baino nabarmen merkeagoa izateak eskaria susta dezakeela. Emakidadunak, halaber, bere gain hartzen du instalazioak behar bezala mantentzeko eta hornitzeko erantzukizuna, haien janaria eta edaria kontsumitu nahi duten erabiltzaileentzako espazio bat ere barne hartuta (gune horren erabilera doakoa da kontsumitzailearen ikuspuntutik). Zerbitzu hori asteko egun guztietan ematen da, bai bazkalorduan, bai afalorduan.

#### **Catering-zerbitzua**

Maiztasun finkorik gabe eta ordutegi aldakorrekin gauzatutako catering bat da. Kontratu-agirietan eta bideragarritasun-txostenean zerbitzuari buruz egiten den deskribapenaren arabera, cateringa entitate emaileari egindako produktu-banaketa huts bezala administratuko litzateke, muntatze- eta desmuntatze-zerbitzua kontratatu ezean. Arestian aipatutako baldintzak, baita ekitaldiaren iraupena, eskaintako produktuak eta zerbitzuaren gainerako ezaugarriak ere, aldatu ahal izango dira beharren arabera. Entitate kontratatzaileak ordainduko du zerbitzu horren erabilera bakoitza.

## **5.2.- Erabilera-eskariari, diru-sarrerei eta inbertsioei buruzko aurreikuspenak**

Entitate kontratatzaileak adierazi du atal honetako datu guztiak 2022an behatutako balioen transposizio zuzeneko gisa eraikitako aurreikuspenak direla.

*Oharrak*

Kontua da 2020. urtea eta, neurri txikiagoan, ondorengoak nahasiak izan zirela, urte hartan deklaraturako koronabirusaren pandemiaren ondorioengatik. Hala, baliteke, aurreikuspenak egiteko, urte horiek kontuan hartu behar ez izatea. Hori esanda, arrazoi horregatik 2022. urtea bakarrik kontuan hartu izanaren justifikazio bat falta da; izan ere, beste egoera batean, halako lagin bat justifikaziorik gabekotzat eta urritzat joko litzateke.

Igarotako datuak etorkizuneko aurreikuspenetara eramate hutsa baliozkoa da, nahiz eta EITBk espektatiba bat eman zezakeen eskaria handitu edo murriztearen inguruan, plantillaren tamainaren balizko aldaketak, pandemia osteko ohitura-aldaketak edo entitateak ezagutzen dituen beste faktore batzuk ikusita (etorkizuneko jokalekuak hobeto ebaluatzeko aukera emango luketenak).

**Erabilera-eskariari buruzko aurreikuspenak**

EITBk «Bilboko egoitzara sartzen diren pertsonen urteko batezbestekoari» buruzko datuak aurkeztu ditu. Honako hauek dira:

| Astelehenetik ostiralera | Asteburuak eta jaiegunak |
|--------------------------|--------------------------|
| 550 – 570 pertsona/egun  | 160 – 170 pertsona/egun  |

*Oharrak*

Jantoki-zerbitzuaren erabiltzaileen urteko batezbestekoa behar bezala definituta ez dagoela dirudi. Emandako informazioa, bereziki, lantokira sartzen diren pertsonen urteko batezbestekoari buruzkoa da. Datu hori ez da nahikoa jantokiko instalazioen erabilera orokorraren intentsitatea baloratzeko (bereziki, emakidaren bideragarritasun ekonomikorako kritikoa den atalarena, hau da, enpresak gauzatzen duen eta jankideei kobratzen dien sukaldaritza-zerbitzuarena). Datu horiek «merkatuaren tamaina potentzial» gisa aurkeztu direla uler daiteke. Baina, nahiz eta datu horiek geroago aurkeztutako beste taula batzuetakoekin osatu diren, ez dute gehiegi argitzen zer aukera dagoen eskariak gora egiteko edo zenbat pertsona dauden lantokian bazkaltzeko eta afaltzeko txandan.

Bestalde, emandako balioak ez dira batezbesteko aritmetikoa, eskas definitutako tarte bat baizik. Asmoa bada enpresa lizitatzailerei balio puntual bat

(batezbesteko aritmetikoa) baino informazio baliotsuagoa eskaintzea, badira helburu hori hobeto betetzen duten balioak, formalki definitutakoak, hala nola pertzentilak. Bestela, beste iruzkin batzuk ere baliotsuak izango ziren, hala nola oporraldietan eta oporretatik kanpo zer aldaketa dagoen bertaratutako jendearen aldetik, zer alde dagoen jaiegun bezperen eta gainerako lanegunen artean, edo asteko egunen batean jende gutxiago izaten ote den.

Entitateak, halaber, jantoki-zerbitzuko unitateak (kontsumoak) eta catering-zerbitzukoak (eskaerak zein eskatutako produktuak) aurkeztu ditu. Informazio hori duten taulen edukia zabala dela-eta, txosten honek edukia azaletik deskribatu besterik ez du egin, eta entitate kontratatzaileak bideragarritasun ekonomiko-finantzarioaz egindako txostenari lotzen zaio, aurkeztutako datuaren xehetasuna ezagutzeko.

Jantoki-zerbitzuari dagokionez, alde batetik, zerbitzatutako menuak deskribatu dira, mota guztietakoak (edaridun menua, edaririk gabeko menua, menu berezia, mahai-zerbitzuaren gehigarria, kafe-gehigarria), eta, bestetik, alde aurretik zehaztutako formula baten babesik gabe erositako gaiak («bereizitako menua» esaten zaio, eta ogia, lehen platera, bigarren platera, azkenburukoa, kafea eta edaria barne hartzen ditu). Gehien erabilitako aukerak bigarren platera, lehen platera, azkenburukoa eta ogia dira, goranzko joerarekin (16.957 – 26.706 unitate); gutxien erabiltzen direnak, berriz, menu berezia, banakako jantokiko mahai-zerbitzuaren gehigarria eta kafe-gehigarria (40 – 327 unitate). Bien artean gainerako aukerak daude (5.125 – 10.780 unitate).

Cateringari dagokionez, adierazi da zerbitzuaren 48 eskaera egin zirela, batez beste, zortzi orduko eskulanarekin zerbitzuko. Adierazi da mahaikideak egokitzeko muntatze- eta desmuntatze-zerbitzuaren hamar erabilera egin zirela, baina ez da argi geratzen hamar aldiz eskatu zen neurketa-unitate estandarra (25 mahaikide) edo inoiz pertsona gehiagori leku egin nahi ote zitzaien (horrek esan nahi luke aldi bakarrean zerbitzu-unitate ugari erabili zirela). Intsumoei dagokienez, mini-opilgintzako piezak eta fruta-broxetak nabarmentzen dira, baita kapsula-kafea ere, gehien eskatutako produktua da eta (1.098 – 2.016 unitate). Produktuen ehuneko laurogei ingururako, hogeitau unitateko erabilera-intentsitatea adierazi da. Gehien erabiltzen diren hiru gaiez gain (arestian aipatutakoak), joera horretatik kanpo dauden bakarrak honako hauek dira: patata-tortilla ogiarekin, 50 edalontzi konpostagarriko set-a, urdaiazpiko- eta gazta-sandwicha, pintxo [ez berezia] eta pintxo berezia (36 – 127 unitate).

#### *Oharrak*

Catering zatiaren kontsumoaren estimazioan, «catering-zerbitzua» terminoa hiru kontzeptu oso desberdinetarako erabiltzen da, eta horrek datuak interpretatzeko beharrezkoa ez den zailtasuna ekar dezake, nahiz eta parentesi

artean adierazten den honako hauek direla benetan aipatzen diren kontzeptuak: egindako catering-eskaera kopurua, cateringari lotutako eskulan-orduak eta catering-zerbitzua muntatzeko eta jasotzeko zerbitzua.

Catering-kontsumoaren estimazioan hogei unitateko erabilera aitortua duten artikulu ugari daude. Argi dago adierazpen hori kontsumoaren estimazioa dela, eta, nolana ere, ez dago argi erregistratutako erabilera bati edo EITBk emakidadun berriari ezarri nahi dion hornidura-eskakizun bati buruzkoa den. Erregistratutako erabilera bada, deigarria da «guztietan hogei» baino kontsumo zehatzagorik eskaini ezin izatea (gainerako produktuetan egiten den bezala) edo, gutxienez, «gutxi erabilitako» produktu horiek guztiak maila berean ez direla erabiltzen islatzen duen estimaziorik eskaini ezin izatea. Emakidadunari ezarritako eskakizuna bada, iraganeko kontsumoetan oinarritzen ez dena, ez dirudi 2022ko ekitaldiko kontsumoa islatzen duen taula bat denik eskakizun hori gauzatzeko leku egokia.

Nolana ere, bai jasangarritasunaren ikuspegitik (kontratuaren dokumentuetan EITBk dio printzipio hori sustatzen duela), bai efizientzia-ikuspegitik (ziur asko, kontsumo horiek EITBri dakarkioten onura txikiagoa da enpresak produktu horiek eduki eta erabiltzen ez direnean botatzeak dakarren kostua baino), oso erabilera txikiko prestazio batzuk kentzea planteatu daiteke, eta horrek catering-zerbitzua merkatzea edo errentagarriagoa egitea ekar lezake emakidadunarentzat.

## Zerbitzuagatiko diru-sarrerak

Aurreikuspenak ezartzeko zailtasuna onartu ondoren, EITBk hainbat aldagai zerrendatu ditu, eta adierazi du kontuan hartu dituela urteko diru-sarrerak estimatzeko, bi egoeratan: batetik, kontratu-agirietan onartutako gutxienerako prezioen taularekin lizitatzea («gutxienerako egoera»), eta, bestetik, gehieneko prezioen taularekin lizitatzea («egoera optimoa»). Egoera horien lehen gauzatze-urterako balioak hurrengo taulan daude, balio erantsiaren gaineko zergan (BEZa) doikuntzak egin ondoren (atal honetako oharretan adierazten den funtsik eza dela eta). Balio guztiak eurotan emanda daude eta ez dute BEZa barne hartzen. Gauzatze arrunt baten pean, urteen arteko aldaketa nabarmen bakarra inflazioari lotutako doikuntza da.

|                    | <i>Gutxienerako egoera</i> | <i>Egoera optimoa</i> | <i>Δ optimoa, %</i> |
|--------------------|----------------------------|-----------------------|---------------------|
| Jantoki-zerbitzua  | 356.578,99                 | 416.124,12            | + % 17,7            |
| Catering-zerbitzua | 72.410,91                  | 84.502,81             | + % 17,7            |
| <b>Guztira</b>     | <b>428.989,90</b>          | <b>500.626,93</b>     | <b>+ % 17,7</b>     |



### Oharrak

EITBk bideragarritasun-txostenaren eskabidean txertatu dituen kalkulu-orrietatik abiatuta, honako hau bakarrik ondoriozta daiteke: aurkeztutako diru-sarrerren balioak zuzenean sortzen direla txostenean aurretik aurkeztutako kontsumo-estimazioetatik abiatuta. Ez dirudi EITBk estimazioan erabili omen dituen aldagai gehienak benetan erabili direnik. Egia da entitateak hainbat doikuntza egin dituela erabilitako kalkulu-orrian, baina, haien izaeragatik, ez dirudi inola ere faktore horien inplementazioari erantzuten diotenik.

EITBrekin izandako elkarrizketen bidez egiaztatu denez, egoeren arteko diferentzia lizitatzailleek aurkeztutako prezio-taularen ezberdintasunen ondorio da eta ez besterik. Hori ez dator bat gastuetarako egindakoarekin, non partida asko beste irizpide batzuen arabera aldatzen baitira; gai horri arreta eskainiko zaio hurrengo apartatuan.

Azkenik, deigarria da bideragarritasun-txostenean aurkeztutako egoeren tauletako balio partzialek BEZa barne hartzen dutela eta guztizko balioak BEZik gabe daudela; horrek beharrezkoa ez den nahasmena eragiten du aurkeztutako datuetan.

### Zerbitzuaren kostua

Enpresa adjudikaziodunak aurreko kontratuan zerbitzua eman duten langileak subrogatzeko betebeharra duela gogorarazi ondoren, eta horrek langileen faktorea aldaezin bihurtzen duela funtsean, EITBren txostenak gastuei buruzko datuak aurkeztu ditu, jarraian eurotan aurkeztuko direnak. Diru-sarrerekin egin zen bezala, gutxienekoen egoera eta egoera optimoa aurkeztu dira. Horrela izendatu dira horietako bakoitzean lortutako diru-sarrerei erreferentzia eginez (hau da, ez da «optimoa» gastu gutxien dituen egoera, baizik eta diru-sarrera handienak dituen).

|  | Gutxienekoen egoera | Egoera optimoa  | Δ optimoa, %    |
|--|---------------------|-----------------|-----------------|
| Langileak <sup>1</sup>                       | 275.325,02          | 275.325,02      | % 0             |
| Lehengaiak <sup>2</sup>                      | 141.566,67          | 141.566,67      | % 0             |
| Hornigaiak (energia, gasa, ura) <sup>3</sup> | 0,00                | 0,00            | % 0             |
| Mantentze-lanak eta beste                    | 12.098,00           | 14.683,00       | + % 21,4        |
| <i>Kobratzeko sistema</i>                    | <i>1.300,00</i>     | <i>1.300,00</i> | <i>% 0</i>      |
| <i>Mantentze-lanak</i>                       | <i>3.300,00</i>     | <i>5.000,00</i> | <i>+ % 51,5</i> |
| <i>Baxera ordezkatzea</i>                    | <i>998,00</i>       | <i>1.300,00</i> | <i>+ % 30,3</i> |

|  |                   |                   |                    |
|--|-------------------|-------------------|--------------------|
| <i>Norbera babesteko</i>                 |                   |                   |                    |
| <i>ekipamendua eta osasun-azterketak</i> | 1.000,00          | 1.000,00          | % 0                |
| <i>Komunikazioak eta informatika</i>     |                   |                   |                    |
| <i>Aseguruak</i>                         | 2.000,00          | 2.000,00          | % 0                |
| <i>Batzuk</i>                            | 2.000,00          | 2.583,00          | + % 29,2           |
| Gastu orokorrak <sup>4</sup>             | 0,00              | 43.157,47         | Ez da aplikagarria |
| <b>Guztira</b>                           | <b>428.989,69</b> | <b>474.732,16</b> | <b>+ % 10,7</b>    |

<sup>1</sup>Eratu zurruna dela kontsideratu da, langileen subrogazioarengatik.

<sup>2</sup>Diru-sarreraren % 30 inguru dela kalkulatu da.

<sup>3</sup>Entitate kontratatzaileak bere gain hartutakoak, kontratu-agirietan definitutako muga bateraino; muga hori ez dela gainditu onartu da.

<sup>4</sup>Egoera optimoko gainerako gastuen % 10 onartu da.

#### *Oharrak*

Langile- eta hornidura-gastuetarako izan ezik («kontsumoak», bideragarritasun-txostenean), gastu-magnitudeen jatorria ez da ezaguna. Bereziki, mantentze-lanen, baxera ordezkatzearen eta «batzuk» kontzeptuaren egoeren arteko hazkundeak zalantzazko justifikazioa duela dirudi. Honako hau suposatzea arrazoizkoa dirudi: EITBren diseinuaren arabera egoerak ez ditu eskariak bereizten, eta, beraz, gastuak ez lirateke aldatu behar, nahiz eta Batzordeak uste duen, agian, gastu orokorren partida bat agertzea eragiten duenaren antzeko irizpide bat aplikatzen aritu dela. Gastu orokorrak bideragarritasunari buruzko atalean aipatuko dira, horiek agertzeak eta haien balorazioak funtsezko eragina baitute EITBren txostenaren bideragarritasunean eta kontzeptualizazioan.

Aparteko aipamena merezi du lehengaien gastuei buruzkoak, «diru-sarreraren % 30» gisa definitutakoak, honela kalkulatu omen denak: «BEZik gabeko lehengaiak BEZa duten gutxienekoen egoerako diru-sarreraren % 30 izango dira». Ez dirudi alderdi hori inongo logikatan oinarrituta dagoenik (ezta entitate emailearen benetako asmoetan ere).

Azkenik, deigarria da EITBren eta Kontratazioaren Aholku Batzordearen artean iritzi ezberdina dagoela aztergai den egoeraren arabera agertzen den —edo ez— gastu orokorren partida bat izatearen bidez kotasunaz; gai hori ere hurrengo atalean aztertuko da.

### 5.3.- Bideragarritasuna

Emakidaren bideragarritasun ekonomikoa zehazteko, EITBk diru-sarreraren eta gastuen balantzea egin du aztertutako bi egoeretarako. Diru-kopuruen hamartarrak alde batera utzita (EITBren bideragarritasun-txostenak biribildu egin ditu hainbat lekutan), gutxienekoen egoerako mozkina zero eurokoa da, edo % 0koa gastuen gainean; jokaleku optimoaren kasuan, berriz, 25.894 eurokoa da, edo % 5,5ekoa gastuen gainean. Horrenbestez, entitateak ondorioztatu du zerbitzuak emateko kontratu hau bideragarria dela ekonomiaren eta finantzen aldetik.

Kontsulta bati erantzunez, EITBk ondorio hori garatu du, eta adierazi du egindako simulaziotik ondorioztatzen dela gastu orokorren partidarik ez duen enpresa batek ez duela galerarik, ezta gutxieneko prezioen taularekin ere, eta gainerako gastuaren % 10eko gehieneko gastu orokor onargarriak dituen enpresa batek (bai eta bakoitza maila desberdinean handitutako hainbat gastu-partida ere) % 6ko etekin industrialak lortzen duela (EITBk diru-sarreraren eta gastuen arteko zatiduraren emaitza biribildu du, eta horrela, goian adierazitako % 5,5, bideragarritasun-txostenean, «% 6» gisa ageri da).

#### *Oharrak*

EITBren bideragarritasun-txostena bi egoera alderatzera mugatu da, itxuraz gastu-suposizio batetik eta galerarik ez izateko aukera emango luketen gutxieneko diru-sarreretatik (lizitazioan onartutako gutxieneko prezioen taula) abiatuta; ondoren, gehieneko prezioen taula aldatu da, EITBren irizpidearen arabera gastu gehigarri «arrazoizkoak» dituen enpresa bati nahikotzat jotako mozkin bat (ehuneko sei) ziurtatzeko.

Lehenik eta behin, egiaztatu da gastu orokorren partida posizio kritikoan dagoela, zertarako eta kontratuaren errentagarritasuna nahi bezalakoa izateko. Izan ere, gutxienekoen egoeran partida hori baztertu egin da, kontratuak galerarik eragiten ez duela frogatzeko; egoera optimoan, berriz, gastu orokorrak gehitu dira, errentagarritasuna inola ere gehiegizkoa izango ez litzatekeela irudikatzeko. Zaila da ulertzea zergatik den «malgua» egitura-gastuak irudikatu beharko litzatekeena (enpresa guztiek dituzte gastu horiek). «Gastu orokorrak» epigrafean egiturazkoak ez diren despentsak jasoko balira ere, ziurrenik oharra bera izango litzateke: ezin da nahierara gehitu eta ezabatu sektoreko enpresa guztientzat antzera jokatu beharko lukeen gastu-partida bat.

Bigarrenik, akatsak, arrazoizkoak ez diren suposizioak eta gehiegizko biribiltzeak direla eta, EITBk kalkulaturako errentagarritasunak ez dira zuzenak. Zehazteke daudela adierazitako oharretatik zuzendu beharreko akatsak,

erakunde emailea birformulatzeko prest egongo litzatekeen alderdiak eta txostenean aurkeztu diren moduan oraindik ere geratuko liratekeen alderdiak, errentagarritasunak EITBk aurkeztutakoekin alderatuta neurri handi batean alda daitezkeela egiaztatu da: aurkeztutako gaien zuzenketa-aukeretarako egindako simulazio labur batean, errentagarritasuna  $-\% 8,8$  eta  $+\% 3,1$  artekoa izango litzateke gutxienekoen egoeran , eta  $+\% 5,5$  eta  $+\% 19,6$  artekoa, egoera optimoan.

Hirugarrenik, horrela jokatu izanak azterketa estatiko bat eragiten du, non ez dagoen lekurik honako zirkunstantzia hauetarako: eskariaren prezioen elastikotasuna, diru-sarrerei eta gastuei uniformeki eragingo ez dien prezio-mailen igoera bat, edo, besterik gabe, EITBren intsumoen eta kontsumoen estimazioek nolabait huts egin dezaketela onartzea. Batzorde honen ustez, bideragarritasun-txostena ezin da mugatu, entitate emailearen suposizioen arabera, kontratua errentagarria dela egiaztatzen; txostenak estimazioak arrazoizkoak direla ere egiaztatu behar du (partzialki baino ez da egin hori), baita abiapuntutako suposizioetan edozein aldaketa eginez gero kontratua ekonomikoki bideraezin ez dela bihurtuko ere. Horregatik, gomendagarria izango zen sentzibilitate- edo stres-analisi bat edo helburu baliokidea duen tresna bat erabiltzea, gerta daitezkeen hainbat egoeratan kontratuaren bideragarritasun ekonomikoa ziurtatzeko, nahiz eta egoera horiek ez izan EITBk erreferentziatzat hartutakoa.

Egia esan, EITBk kontraturako egin duen diseinurako, arazo nagusia da suposizio ugari eraiki direla, bereziki enpresek «atzerantz» eskain ditzaketen prezio-tauletako tartetan; hau da, EITBk finkatu du zer irizpide nahi duen eskaintzek betetzea errentagarritasunari dagokionez, eta simulatu du zer prezioek daramaten irizpide horiek betetzera (eta, itxuraz, zer gastuk ere bai, kasu batzuetan). Jokaera hori agian onargarria izan daiteke *kontratuaren hasierako diseinurako*, baina ez da horren onargarria *bideragarritasun-txostenerako*, non, espediente osorik kontuan hartzen bada, argudio zirkularrak erabiltzen diren bideragarritasuna justifikatzeko: lortu beharreko errentagarritasuna finkatu da, errentagarritasun-irizpide hori betetzera daramaten prezioak zehaztu dira eta kontratua bideragarria dela ondorioztatu da, hain zuzen, prezio horiekin kontratua errentagarria delako. Benetako stres-analirik ez dagoela eta (Batzorde honen ustez, SPKLren 333. artikulua bideragarritasun-txostenaren elementu egituratzailea da), badirudi, akatsak eta zehaztugabetasunak alde batera utzita, kontratuaren

zenbakizko balioak irizpideren batean oinarritzen direlako egiaztapen huts baten aurrean gaudela. Beraz, txosten honetan egindako oharren zati nabarmen bat Batzorde honek idealtzat jotzen ez duen paradigma baten erabilerari buruzkoa da, eta benetako irtenbide bakarra txosten berri bat sortzea litzateke, aipatutako analisi mota barne hartuko lukeena.

## **6.- EITB-REN MIRAMONGO EGOITZAKO ZERBITZUEN EMAKIDA-KONTRATUAREN BEREZITASUNAK ETA ZERBITZUEN EZAUGARRI OROKORRAK**

Puntu honetan, Miramongo zerbitzuen emakida-kontratuari buruzko iruzkin labur bat egingo da, Bilbori dagokiona erreferentziatzat hartuta, eta aldaketa nagusiak bakarrik nabarmenduko dira, bai aurkeztutako gertaeretan, bai egindako oharretan.

### **6.1.- Zerbitzuen emakida-kontratuaren erabileraren justifikazioa**

Zerbitzuen emakida-kontratua erabiltzeko arrazoiak Bilboko kasuaren berberak dira.

#### **Emakidaren objektua diren zerbitzuak**

Jantoki-zerbitzua Bilbokoaren antzekoa da, baina ez da afari-zerbitzurik ematen. Miramonen kafetegi-zerbitzua dago, egunero hiru tartetan ematen dena. Gaingiroki, goizerdia, bazkalordua eta arratsalde/gaua izan daitezke hiru tarte horiek. Sukaldaritza-zerbitzuaren espazio berean ematen da, eta bazkalorduan gainjarri egiten dira.

Catering-zerbitzuak Bilbon emandakoaren baldintza berak ditu.

### **6.2.- Erabilera-eskariari, diru-sarrerei eta inbertsioei buruzko aurreikuspenak**

#### **Erabilera-eskariari buruzko aurreikuspenak**

Datu guztiak 2022. urtekoak dira.

Miramongo egoitzara sartzen diren pertsonen urteko batezbestekoa Bilboko bano zertxobait txikiagoa da, batez ere asteburuetan. Bilborako datu baliokidearen arazo berak daude.

Zerbitzu-unitateei dagokienez, eman beharreko zerbitzu guztiei buruzko datuak aurkeztu dira, baina berezitasun batez: sukaldaritza- eta kafetegi-zerbitzuak ez dira bereizi. Bilborekiko diferentzia batzuk daude eskaintzen diren produktuei dagokienez (ez da menu berezirik eskaintzen, ezta banakako jantoki-zerbitzurik ere), bai eta gehien eta gutxien erabiltzen direnei dagokienez ere (adibidez, kafe gehiago zerbitzatzeko dira, bai menu-formuletan, bai horietatik kanpo, edo lehen plater gehiago azkenburukoak baino), baina joerak, oro har, berdinak dira.

Nabarmenezkoa da cateringean zerbitzatzeko produktuek datu errealak dituztela, eta ez estimazioak Bilbon bezala (hobetu beharreko alderditzat jotzen zen hura). Horrela, egiaztatu da

Miramonen, gutxi zerbitzatutako produktuak egon arren, ez direla nagusi multzo osoan, Bilbon ez bezala.

### **6.3.- Jantoki-, kafetegi- eta catering-zerbitzuengatiko diru-sarrerak**

#### **Zerbitzuagatiko diru-sarrerak**

Diru-sarrerak zehazteko, Miramonen eta Bilbon irizpide bera erabili dela dirudi; hau da, egoeren arteko diferentzia lizitatzailleek aurkez ditzaketen prezioen tartearen arabera da. Deigarria da, EITBrekin izandako elkarrizketan, entitateak adierazi duela Miramonen erabilitako irizpidea alde aurrekoa zela eta nolabait Bilbon erabilitakoarekin zuzendu zela. Hala ere, Batzorde honek ez du aldaketa nabarmenik aurkitu bi emakiden artean, egoera bakoitzeko diru-sarrerak zehazteko orduan.

Horrela, Bilboko kontraturako egindako oharrak Miramongo kontraturako ere baliagarriak dira printzipioz.

#### **Zerbitzuaren kostua**

Printzipioz, gastuak Bilboko kasuaren modu berean kalkulatu dira, berezitasun batekin: lehengaien kontzeptua («sarreraren % 30») egoera bakoitzeko BEZik gabeko sarreraren gainean kalkulatu da, eta horrek Bilbon egindakoa baino naturalagoa dirudi, BEZari dagokionez behintzat. Dena dela, bi kontratuetako beste gastu-kontzeptu batzuetan gertatzen den bezala, zalantzan jar daiteke, gutxienekoen egoera edo egoera optimoa den kontuan hartuta, lehengaien kostua aldatu behar ote den.

Azkenik, ikusi da Miramongo zerbitzu-emakidan egoera batetik bestera aldatzen diren gastuak ez direla Bilboko emakidakoak berak, eta hori Miramon eta Bilbo artean egin omen den irizpideen «zuzenketaren» ondorio izan daiteke. Nolanahi ere, Batzordeak aldaketa horien bidezko tasuna zalantzan jartzen du, zein gastu-partidari eragiten dioten alde batera utzita. Gastu orokorren partidak, ordea, jokaera berari eusten dio. Kontzeptu zein magnitude aldetik partida nagusietakoa da, eta berriro ere ohartarazi behar da enpresen egitura-gastuak jarduerarako berezkoak eta funtsezkoak ez balira bezala tratatzeak ekar ditzakeen ondorioez.

### **6.4.- Bideragarritasuna**

Gutxienekoen egoera espero den errentagarritasuna % 0 da, eta eredu optimoan, berriz, % 5,45  $\approx$  5,5ekoa (bideragarritasun-txostenean % 6ra biribildua). EITBk ondorioztatu du txostena ekonomikoki bideragarria dela.

Bilborako egindako ohar guztiak aplikagarriak dira. Berriro esan behar da bideragarritasun-txostenak oinarri duen abiapuntua txosten honetako ohar askoren jopuntuan dagoela.

## **7.- ONDORIOA ETA AZKEN IRUZKINAK**

EITB entitate kontratatzaileak, SPKL betez, bideragarritasun ekonomiko-finantzarioaren azterketa egin du. Espedientearen beste dokumentu batzuetan agertzen den diagnostikoa berrestez gain (hau da, zerbitzuen emakida-kontratu bat egin behar dela kontratatutako zerbitzuaren ezaugarriengatik, eragiketa-arriskuaren eskualdatzeagatik eta kontratuaren aldiagatik), EITBk ondorioztatu du kontratua bideragarria dela.

Alde batetik, gertaera saihetsezin bat dago: kontratu horiek duela zenbait hilabetetatik gauzatzen ari dira, zegokion lizitazio- eta adjudikazio-prozesutik igaro ondoren, eta horrek iradokitzen du, beraz, enpresa emakidadunarentzat EITBk eskaintzen zuena ekonomikoki bideragarria dela.

Kontratuak dagoeneko gauzatzen ari direla egiaztatzea ez da nahikoa kontratu horiek jasangarriak direla ondorioztatzeko; izan ere, txosten honek lizitazioaren aurretik zegoen informazioa kontuan hartu behar du eta, gainera, kontratu publiko batean lizitatzailerik bat egotea kontratua benetan bideragarria den zantzua da, baina ez bermea. Gainera, nabarmendu behar da enpresa adjudikazioduna eta lizitatzailerik bakarria Bilboko egoitzan jantoki- eta catering-zerbitzuen aurreko kontratua gauzatu zuen enpresa bera dela (kontratu horrek EITBren beharrak betetzen zituen). Horrek iradokitzen du soilik haren berezko abantaila baliatuta ere bideragarria izan litekeela kontratua.

Bestalde, eta aztertzeko aurkeztutako informazioaren edukari zorrotz erreparatuta, arazo bat dago: bideragarritasun-txostenak ez du, bere zeregina betetzeko, Batzorde honek beharrezkotzat jotzen duen edukia. Zirkunstantzia hori funtsezkoa da txosteneko iritziaren zentzua azaltzeko, eta areagotu egiten da bideragarritasun-txostenean justifikatu gabeko hainbat akats eta zehaztugabetasun daudela egiaztatu ondoren.

Beraz, azaldutakotik ondorioztatu da Batzorde Iraunkor hau ez dagoela gauzatzen ari diren zerbitzuen emakida-kontratu horien jasangarritasuna baloratzeko moduan.